

mi-mo

minimal art: *Pop art*-earen hizkera zuzeneko eta hiperrealistaren kontrako erreakzio bezala, hirurogeita hamarreko urteetan eskultura abstraktua garatu zen *minimal art*-earekin, bere espresio-ahalmena kategoria formal urri eta axiomatikoki batzuetara murriztuz lan egiten zuena. Behin eta berriz forma hutsak azaltzeko ekinaldi metodiko hau Ameriketako praktikatu zuten artisten artean daude Carl Andre, Dan Flavin, Robert Morris, Sol LeWitt, John McCracken eta Donald Judd. Artista hauek hautsi egin zuten eskultura bere baitan itxitako espresio-forma bezala ulertzeko lehengo modu zaharra, eta objektu modelatuen premiak ere kontuan hartuz lan egin zuten, inguruko espazioaren arabera forma emanaz objektu horiei. Horregatik, *minimal art* izenarekin joera abstraktu bat adierazi nahi da arte modernoaren barruan, mendearen hasierako kubismoak egin zuenaren antzera, forma bere jatorrizko egiturara itzularazten saiatzen dena. Artistak bolu-menaren funtsezko determinatzaileetara murrizten du forma eskulturala, eta era horretan, egitura argi eta geometrikoen paradigma bezala, erraz azaltzen da ezen erlazio kausal oro hexaedroaren, azal edo bilduraren, burdin-sarearen eta abarren fenomenalitatearen menpe geratzen dela. Itxura espazialeko oinarriko determinatzaileetara murriztea lortzeko, arte-produktu minimalak alde batera uzten ditu dekoraziozko apaingarri guztiak eta hizkera uniboko eta serio baten bidez ingurubirako espazioaren erlazioetan murgiltzen da erabat, erlazio horiek azpimarratuz bai argiak materialaren gainean sortzen duen efektuaren bitartez eta bai bolumenari erantsitako hedapen-indarraren bidez. Horregatik, *minimal art*-earen objektuak eskultura bezala baino gehiago ikusmenarentzako hesi bezala ulertu behar dira, behatzailearen arreta alderdi espazio-funtzional eta, aldi berean, arkitektonikoetara biltzen duten hesi bezala. Morrisek bere espazio-determinatzaile soilen pertzepzioa lortzeko premia justifikatu beharrez esaten du: "forma-sinpletasunak ez duela nahitanahiez bibentzia artistikoaren sinpletasuna esan nahi. Forma unitarioek ez dute erlaziorik murrizten, ordenatu baizik. Forma unitarioen izaera hieratikoa menperatzaileak konstante bezala lan egiten duenean, ez dira dimentsio, proportzio, eta abarretako erlazio singularizatzaileak neutralitzen, baizik eta, oso bestela, sendoago eta banaezindugoa elkartzen dira.

mitologia: Mundu irudimenezko bati, indibidual edo sozialki balio duen bati, ematen zaion deitura da, eta gizakiaren eta bere inguruaren kontzepzio existentzialaren teoria bat inplikatzeko du; beraz, razionalki egiaztatatu ezin daitezkeen afirmazioak izaten ditu, adibidez, munduaren jatorria, gizadiaren genesia, etab.

Kultura primitiboetan, irudimenezko mundu mitologikoan txertatuta ikusten zen mundu erlijioso, eta gorde eta babestu eta ondorengo belaunaldiengana transmititzen zen aparteko doaiak zituzten pertsonen bitartez. Kultura desberdinetako mitologiek beti erreferentzia bezala munduaren jatorria eta giza existentziaren zentzua hartzen zituztelarik, mitologiak osatu zuten erlijioarentzako eta gero arte sakratuak desitxuratu zuten kontzientzia historikoarentzako markoa eta horizonte historikoa.

mitologia indibiduala: Paul Kleeck erabilitako *poetic image* espresioaren aldagarri bezala, Documenta V.ak (1972koak) momentuko abangoardia artistikoaren korronte jakin bat laburbildu zuen "mitologia indibiduala" gaian, eta jendearen aurrean aurkeztu zuen. Afirmazio sortzaile eta subjektibo honen produkzio artistikoez ez daukate inolako izendatzaile komunik, baizik eta, aitzitik, tipifikazio orokor orotik kanpora geratzen dira, forma gututz irekia dutelako eta artistak nortasun bereizita duelako. Kanpoko itxuraz, ordea, ulergarriak eta abangoardiako beste joera batzuetatik bereizteko modukoak izaten dira mitologia indibidualak, bibentziaren intentsitate trinkotuzko azalpena egiten dutelako eta batez ere irizpide formaletara ez eta asmo artistikoaren eta espresio artistikoaren arteko identitate atzemangarria lortzera bideratzen direlako. Documenta V.eneko Paul Thek, Christian Boltanski eta Etienne Martin artistak daude erlazioan mitologia indibidualekin, eta baita Beuys-en "Besucherraum für Demokratie" izenekoa eta Byar-en bisualizazioak ere, eta beste ezereen gainetik solidarioa den espazio intelektuak primitiboa osatzen dute, zeinetan "norberaren mundua adierazten duten sinboloak eta zehinuk jartzen baititu bakoitzak" (Szeemann). Mitologia indibidualak indibidualtasunaren kontzientzia jartzen du agerian, gizartearen altzoan berriro bizitzen dena.

mixed media: Dantza, zinematografia, musika, teatroa eta ingurunearen konfigurazio espaziala "medio" bezala elkartzeak, gauditu egiten du arte plastikoaren jatorrizko izaera, eta ekintza-arte dadaistaren lehenengo esperientzian izan zuen bere sorburua. Objektuaren kontentzioaren ematen zen ohiko aldaezintasuna, baze eta soseguzkoa, alde batera utzi zen kontzientziaren estimulazio emozional bat lortze aldera. Publikoa sensibiltzatzeko prozedura intentsibo honek emaitza psikologiko onak ematen ditu bibentzia harrigarri eta amorragarri baten aurrean jartzen gaituelako, parte hartzen ari den ikuslea zalantzan jarraraziz bere ohiko esperientzien segurtasunari dagokionez. Jarraia sentsorialaren ekinaldi jarraiak atentzio bizia eskatzen du. *Mixed media* disziplinarteko ekintza artistikoa den neurrian, kontzientzia konzentratzeko eta harmena sensibiltzatzeko printzipio metodiko bat da, izan ere entzumena, ikusmena, dastamena, ukimena, eta sentimen guztiak hain inplikaturik geratzen dira ezen posible egiten baita gertaeraren gainean erabat konzentratzea eta esperimentatutakoari buruz kontzientzia hartzea.

Arte-espresioaren era desberdinen eta bere baitan itxitako sentimenezko bizipen esperimental baten arteko konbinazioak, berebat, konfigurazio artistikoa errealtate heterogeneoaren egoki-

tzeko prozesua ere adierazi nahi du, kontsumoko gizartearen kontzientzia konbentzionalen faltsuetara dagoen errealtate horren irudia ezin baita dimentsio bakarrek bidetik eramandako ekimen artistikoen bidez desagertarazi. Guzti honengatik, *mixed media* arte-espresioaren beste orientazio metodiko berri bat da, eta bere asmoa du "gizakia bere hartan hartuz" hari ingurugiroa modu emantzipatzailean itzultzea, inguru hori jatorriz gizakiak egituratutakoa, baina gero besterendua izan baita. Borondate inprobisatzailea jartzen da erreperitorio kontsumista programatuaren lekuan.

modernismoa: 1900. urte inguruan internazionalki zabaldutako estilo bati emandako deitura da; Frantziako *art nouveau* esaten zaio, *modern style* Ingalaterra, Errusia eta beste zenbait herrialdeetan, *Jugendstil* Alemanian, eta *Sezessionsstil* Austrian. *Jugendstil* izena, 1896az geroztik Munich-en argitaratzen zen *Jugend* arte-aldizkariak erabiltzen zuen ilustrazio-estiloa eta egikera ereduizat hartzen zuten estilo bati aplikatu zitzaion hasieran, eta arte aplikatuaren, arkitekturen eta arte plastikoaren barruan haien antzeko ezaugarriak zituzten obra guzti ere bai gero. Modernismoan, alde batetik, *fin de siècle* ukitu bat ispliatzen da, alegia XIX. mendeko, mende akitu eta edukiz hustuta geratutako baten krisi sakona islatzen da, baina, aldi berean, artearen ulermen berri baten espiritua ere irekitzen da estilo honekin, modernismoko artistek industriako eta industri materialietako datu berriak sormenez aztertzen hasten baitira, diseinuaren konfigurazioan. Eredu sozialaren sartzen den eta lerroaren azpimarran eta lerroak gainazalarekin eta espazioarekin duen erlazioan, ornamentuan eta asoziazio gogorrek dituen apaingarriko sinbolismo batean oinarritzen den kultura bisual baten eboluzioaren erdian, oso kontzientzia sozial markatua izateagatik nabarmendu zen modernismoa, eta unitate estilistiko espezifikoa bezala jarri zuen praktikan kontzientzia hori, jeneralean barneetako arkitekturen, arte industrialetan, kartelgintzan, aldizkari eta liburuetan.

Arkitekturari dagokionez, materialarekin eta funtzioarekin ondo datorren eraikuntza bat prontatzen du modernismoak, eta arteen konbinazio bat egiten du ingurugiroaren txaueran, geroago "Deutsche Werkbund" eta Bauhauskoengan jarraipena izan zuena. Pintoreek diseinuan eta barnetokien antolaketan lan egin zuten, erabiltzeko tresnen estiluzio markatua praktikatu eta funtzionaltasunaren eta edertasunaren arteko sintesi bat egiten saiatuz.

Lerroak eta landare-forma gurutzelarkatuak azaltzen dira nagusi modernismoko formen erreperitorioan; behin eta berriz txirikordatuta azaltzen dira edo eritmikoki mugikor, baina ia sekula ez angelutan hautsita. Komplementarioen sistemak oinarritzen zen kolorearen teknika neoinpresionistarekin korrespondentzia, modernismoak lerro komplementarioak garatu zituen. Bere asoziazio sinbolikoekin, modernismoak inpresionismoaren eta espresionismoaren arteko igarantzaren une garrantzitsu bat errepresentatzen du pinturan, eskulturen eta ilustrazio grafikoan, eta aldi berean, forma abstraktuen aurreko bat ikusten da arabesko moduko lerro dekoratiboan, estilo honen hain berezkoa den horretan. ■